

Borrokan jarraitzen dute Bridgestoneko langileek

LA HAINE - EUSKAL HERRIA :: 14/05/2025

Enpresaren azken proposamena da Basauriko fabrikan kaleratze-kopurua 335tik 232ra murriztea.

Bridgestone Basauriko langileek lantegiko ekoizpena eten zuten astelehen honetan, enpresak aurkeztutako enplegu-erregulazioko espedientearen aurkako greba aho batez egin ostean. Batzordeko iturriek jakinarazi zutenez, jarraipena %100ekoa izan zen.

Azken hilabeteen mobilizazioak etengabeak izan dira. Txanda bakoitzean, langileak fabrikako sarreretan kontzentratu dira, pikete informatiboetan parte hartuz, eta milaka pertsona bildu dituen manifestazioa antolatu dute.

Borroka honi esker, Bridgestoneko zuzendaritzak azken proposamen bat egin zien langilei: Basauriko fabrikako kaleratzeak 232ra murriztea (hasiera batean 335 ziren), 53 urtetik gorakoak espedientetik kanpo geratzea eta lan egindako urte bakoitzeko 45 eguneko kalte-ordainak, besteak beste. Gaur, asteazkena, batzarrak egingo dituzte lantegian. Ostiralean, maiatzak 16, bozketa egingo dute langileek zuzendaritzaren azken proposamenaren alde edo kontra dauden adierazteko.

<https://eh.lahaine.org/borrokan-jarraitzen-dute-bridgestoneko-langileek>